

zik eta paperean idatzitakoa, gaia gogorra zenez nahiago izan zuelako kanta dotorea aurretik prestatzea. «Guk dakigunez Villabonako bederatzi lagun izan ziren nazien kontzentrazio esparruetan. Pilatua izaten zituzten presoak eta lan behartuen bidez heriotzaraino kondentatzen zituzten gizakia txikitzeko antolatutako zentroetan. Gosea, izua, nekea, tortura... erabiltzen zituzten erregimenaren kontra zegoen edonor zigortzeko, betiere euren 'legearen' barruan», jarraitu zuen Amenabarrok.

Mauthausen hirugarren gradu kontzentrazio eremu gisa identifikatuta zegoen, hau da, gogorretan gogorrena. Bertan harrobi bat zegoen eta presoek bertan egiten zuten lan. Bertatik atera zen Adolf Hitler beraren gurasoen hilarria egiteko materiala, baita diktadorearen bizileku zen Linz hiriko errepi-deak egiteko ere.

#### BIZIRAUN ZUTENAK...

«Gerrako boluntario gorri espainolak» hartu zituzten Mauthausenen milaka pertsona hil ziren, Europako txoko desberdinetatik iritsitakoak. Adolfo Lozano hil zirenen artean dago. Alberto Beaufort, ordea, bizirik atera zen bertatik. Lozano eta Beaufort dira Mauthausenen izandako Villabonako bi herritarrak eta atzoko omenaldia bie eskaini zieten, naiz eta pisu handiagoa izan zuen Lozanok, bera ez baitzen bertatik bizirik atera.

Villabonan jaio bazen ere, Alberto Beaufortek herritartasun frantsesa zuen kontzentrazio esparruko artxibategiaren arabera. Bere gurasoak Baionakoak ziren jatorriz. 1944ko martxoan atxilotu zuten alemanek eta Compiègne herriko espetxera eramane zuten hasiera batean.

Egun batzuk geroago Mauthausenera mugitu zuten. 59.544 zen bere preso zenbakia. Handik Gusengo azpi eremura eramane zuten 1945eko maiatzean AEBetako armadak esparrua «askatu» zuen arte.

Villabonako gainontzeko zapi lagunak Gurs esparruan izan ziren. Juan Peña Villarealek 18 urte zituen atxilotu zutenean, 1939ko otsailaren 12an Argelesen, eta Gernika Berri batailoiko kidea zen. Ogibidez tornularia zen. Batailo berekoa zen Martin Gonzalez, eta operazio berdinean atxilotu zuten hura ere. Bere preso zenbakia 5.563 zen.

Angel Garcia Etxarrenek 20 urte zituen Gursera eramane zutenean. Gernika Berri batailoian zebilen garai hartan. EAJko ordezkaria zen eta pilotan jardutea gustatzen zitzaion.

Hilario Garcia Ilardia 21 urteko UGTko kidea zen, arotza ofizioz. Karabineroa izan zen Katalunian. 1939ko otsailaren 2an Le Boulouen atxilotu zuten.

Gernika Berriko kide izateagatik espetxeratu zuten Alejo Ramos Arrate eta Argelesko kartzelatik Gursera eramane zuten. Hau ere pilotaria zen.

Jose Ignacio Garmendiak, guztietan zaharrenak, 44 urte zituen preso hartu zutenean. 1939ko abuztuak 28an askatu egin zuten.


#### OROIGARRIAK LURREAN

Izen guztiak oroitu ostean La Ilusión taldeko Floren Mariñelarenak hartu zuen hitza. Kolektiboa Europa osotik oroigarriak jartzen ari da errepresaliatuak gogora ekartzeko. «Badago herri txiki bat Mauthausen izena duena. Oso leku berezia da, Danubio ibaiaren alboan dagoelako. Oso polita da, zoragarria, belarra hemen duguna baino



Goian, Mauthausengo presoak AEBetako soldaduak agurtzen 1945ean, esparrura heldu zirenean. Alboan, presoak biluzik, kontzentrazio esparruan bertan. Argazki txikian, Adolfo Lozano Olazabal, Bigarren Errepublikako armadako komandantea.

GARA / CONCEPCION LOZANO BENGOREN ARTXIBOA



berdeagoa da. Zoritxarrez, due la urte pila bat, norbaiti buruan sartu zitzaion bertan granitoko harrobia egitea eta jendea harriak ateratzera behartzea. 186 eskailera igo ondoren, berriro jaitzi eta berriro igo. Jaten gaizki ematen zieten. Horrela hil arte. Beste batzuetan, besterik gabe, tiro egiten zieten. Batzuek bertatik atera ahal izan zuten. Hitler eta Franko ez zeuden bakarrik, eta, horregatik, sarraski hura berriro ez errepikatzeo neurriak hartu behar zirela erabaki zuten. Handik aurrera saiatuko ziren beste gizarte bat eraikitzen», kontatu zuen Mariñelarenak.

1945ean Ameriketako Estatu Batuetako soldaduak Mauthausengo kontzentrazio esparrura iritsi zirenean, nazien banderen orde espainiar bandera errepublikanoak aurkitu zituzten, eta, ate nagusiaren gainean, «Los españoles antifascistas saludan a las fuerzas libertadoras» zioen pankarta erraldoi bat. Une horretatik aurrera presoak aske gelditu ziren arren, askok eta askok ezin izan zuten Estatu espainolera itzuli, Fran-

kismoaren errepresioarengatik. Hala, beste herrialde batzuetan errefuxiatu behar izan ziren, batez ere Estatu frantsesean.

Iraganera begirada bota ostean, Villabonan elkartutako guztiak txistulariaren doinuei jarraituz Adolfo Lozanoren etxea zegoen ingurura gerturatu ziren. Eraikina jada eraitsita dago, baina, hala ere, lurtean oroi-garri bat jarri zuten Adolfoaren omenezko aureskua dantzatu ostean.

Bertatik Kale Nagusira abiatu ziren, ez baitzuten Alberto Beaufort ahaztu nahi izan. Antolatuak ez dute bere oinordekorik topatu, beraz, inork ez zuen lore sortarik jaso bere izenean. Aureskua, ordea, berdin-berdin dantzatu zioten. Lurrean ere badago berarentzat oroigarria, non gogoratzen den esparrutik bizirik atera zela.

## TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC eta torno konbentzionalean lan egiteko.

Interesatuak bere CV ondorengo helbidera bidali beharko dute:

Talleres Mitxelena, S. Coop.,  
Eziago poligonoa 21,  
20120 Hernani,  
2015/12/20 baino lehen.  
info@talleresmitxelena.com



AMURRIOko

## Aresketa Ikastolak

- Ekonomia edo Enpresa Zientzietan lizentziatua/diplomatua behar du.
- EGA edo baliokidea beharrezkoa.
- Lanaldia: 3 ordu/egunean

CVa: idazkaritza@aresketaikastola.eus

Epea: Abenduaren 18

